

Eskuinak eta ezkerak

El Mundo del País Vasco, 1991-07-19.

Saiatzen dira politikoak eskuina eta ezker bereizten. Lehen, eskuina zen santu; gaur, berriz, eskuindarrek ere ezker apur baten bila dabiltza santuarena egiteko. Nola aldatzen diren denborak!

Frantsesak, esate baterako, ez du ingelesa ongi ikusten; bistaz bai, baina gure aitak zion bezala, bada miopia baino txarragoa den beste gaitz bat: ikusiezina. Azken bi mundu gerrak elkarrekin eginak dira, ba!; bando berean, eta bi gerrak irabazi gainera, eta halere aintzinagoko gerrak piztutako gomuta txarren mende, "Ehun Urtetako" hura ezin ahaztu! Igaz, frantsesak Thatcher anderea zuen gogo txarrerako aitzaki, eskuina eta gogorra zelako, frantsesaren emaztea bezelakoxea. Baina ingelesak Thatcher botatzea lortu bezain laster izur bera sartu dio Miterrandek bere mende dagoen herriari: Cresson anderea; ez, bada, marimotrailua hain gogorra delako, negar baino barre gehiago sortarazi baitu... baina frantsesa barrez ari den honetan inglesa da berriz esku: Manchako tuneletik dator, mendekua buruan; bide berri honetatik frantsesak irlak bete aurretik ingelesak berak beteko du Galia, frantsesa bere gilotina gaintik monarkiaz trufan ari den bitartean; Ezker-ezkerretik gainera, hau baita kotxe manejurako bere esku naturala. Abantaila bat du Britainia Handiak: asiarrak eta afrikarrak barruan, 60 milioi badirela; eta Frantziak, beltz, moro eta harki, denera 53 milioi besterik ez. Zazpi milioien abantaila handia da!; batez ere eskuinetik ibiltzeko ohitura duen txofer frantsezarekin topo egiterakoan!; nor hilko den lehen?, biak hilko dira, baina irlako humoristari zazpi miloi geratzen zaizkio oraindik soberan!